11.- GASTUAK ETA ZERGAK, KONTRATISTAREN KONTURAKOAK Lizitatzaileek aurkeztutako proposamenetan zein esleipen-aurrekontuetan sartuta egon behar dira honako hauek: gastu orokorrak, finantza-gastuak, aseguruak, garraioak, joan-etorriak, materialak, arropak, instalazioak, euren ardurapeko langileen lan-sariak, tasak eta zergak, kontratutik eratorritako betebeharrak, industri onura eta BEZ, zerbitzu horri zeharkako zerga hori ezarriko balitzaio.	**11.- GASTOS E IMPUESTOS POR CUENTA DE EL/LA CONTRATISTA** Tanto en las proposiciones presentadas por los licitadores como en los presupuestos de adjudicación se entienden comprendidos gastos generales, gastos financieros, seguros, transportes y desplazamientos, materiales, vestuario, instalaciones, salarios, honorarios y retribuciones de personal a su cargo, tasas y toda clase de tributos, y demás derivados de las obligaciones del contrato, beneficio industrial, y el Impuesto sobre el Valor Añadido, si en su caso se pasase a gravar el servicio con este tributo indirecto.
12.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA A. BESTE BATZUEI ERAGINDAKO KALTE-GALERAK DIRELA ETA	**12.- RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA** A. POR DAÑOS Y PERJUICIOS CAUSADOS A TERCEROS

Kontratuaren exekuzioa esleipendunaren arrisku eta menturaren arabera egingo da (2017 SPKL, 197. artikulua), mugen eta erantzukizunen barruan (2017 SPKL, 196. artikulua), eta ezertan galarazi gabe 239. artikuluan datorrena.	La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del adjudicatario, artículo 197 de la LCSP 2017, de acuerdo con los límites y responsabilidades establecidas en el artículo 196 de la LCSP 2017, y ello sin perjuicio de lo establecido en el artículo 239.
Kontratista izango da zerbitzua burutzeko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalte eta galera guztien erantzulea, 2017ko SPKLaren 238. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.	Será obligación del contratista indemnizar por todos los daños y perjuicios que se causen a terceros como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato, de acuerdo con lo dispuesto al efecto en el artículo 238 de la LCSP 2017.
Horretarako hauxe ekarri behar du: aseguru polizaren kopia bat eta hori ordainduta dagoela ziurtatzen duen agiria, kontratuaren berezko arriskuak ordainduko dituena, eta bereziki inori eragindako kalteengatik eta esleipendunaren aldi baterako zein betiko langileen ekintzetan, makinen eta tresnen erabileran, nahiz esleipenaren xedeko zerbitzua ematerakoan burututako lanetan sor litezkeen kalteengatik eratorritako erantzukizun zibila, kaudimenari buruzko atalean zehazten den legez.	A tal efecto aportará copia de una póliza de seguro y justificante de pago de la misma, que cubra los riesgos inherentes al contrato y en especial la responsabilidad civil (general y patronal) en que pueda incurrir por los daños causados a terceras personas y derivados de actos del personal de el/la adjudicatario/a, de sus empleados/as y dependientes, permanentes u ocasionales, de la maquinaria y el equipo, así como a consecuencia de los trabajos realizados durante la ejecución del servicio, en los términos que se recoja en el apartado de solvencia.
Kalte edo galerak Administrazioak emandako aginduren baten ondorioz zuzenean eta berehala gertatuak badira, legeetan ezarritako mugen barruan izango du erantzukizuna Administrazioak.	Cuando tales daños hayan sido ocasionados como consecuencia inmediata y directa de una orden de la Administración, ésta será responsable dentro de los límites señalados en las leyes.
B. BERANDUTZEAGATIK ETA EXEKUZIOAN AKATSAK AGERTU DIRELAKO	B. POR DEMORA Y POR DEFECTOS EN LA EJECUCIÓN
Kontratistaren erantzukizuna izango dira berak gauzatzen dituen lanen, prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoa, bai eta kontratua gauzatzerakoan izandako hutsegite edo hutsuneetatik, edo metodo desegoki edo ondorio okerretatik Administrazioarentzat edo hirugarrengoentzat sortzen diren ondorioak.	El/La contratista será responsable de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones o servicios realizados, así como de las consecuencias que se deduzcan para la Administración o para terceros de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato.
Exekuzioan atzeratuz gero, zigorrak etor litezke eta kontratua aldi baterako suntsitzea, 192. eta 193. artikuluekin bat etorriz, eta Plegu honetan arautzen den bezala. Zigor berak ezarriko dira kontratua osorik bete ezik zein zati batean bete ezik. Zati bat bete ezik, zigorrak kalkulatzeko bete barik geratu den zerbitzuaren aurrekontua hartuko da aintzat. Horrek guztiak ez dio kentzen Administrazioari kontratua suntsitzeko daukan ahalmena. Era berean, administrazioak aukera	La demora en la ejecución dará lugar a la imposición de penalidades y eventual resolución del contrato, en los términos previstos en los artículos 192 y 193, y en los términos dispuestos en el presente Pliego, siendo de aplicación el mismo régimen de penalidades tanto en el caso del incumplimiento total como del incumplimiento parcial. En el caso del incumplimiento parcial el cálculo de las penalidades se referirá al importe del presupuesto del servicio parcialmente

dauka kalte-ordainak eskatzeko.	incumplido. Lo anterior se entiende sin perjuicio de la facultad de la Administración de proceder a la resolución del contrato y a la eventual reclamación de indemnización de daños y perjuicios.
2017ko SPKLaren 76.2 eta 202.1 artikuluekin bat etorriz, ontratuaren konpromisoak edo baldintza bereziak txarto bete edo bete ezean, zigorrak arau haustearen larritasunaren araberakoak izango dira, 2017ko SPKLaren 192. artikuluan ezarritako gehienezko mugen barruan (%10 edo %50).	En materia de prestación defectuosa o de incumplimiento de los compromisos o de las condiciones especiales de ejecución del contrato, establecidas al amparo de los artículos 76.2 y 202.1 de la LCSP 2017, se impondrán penalidades en proporción a la gravedad del incumplimiento hasta los límites máximos del 10% o del 50% en los términos señalados en el artículo 192 de la LCSP 2017.
Plegu honetan zehazten da, 15. Klausulan, zigorrak ezartzeko araudi bat, arau-hauste bakoitzaren garrantziaren arabera.	Se establece en el presente Pliego, en la cláusula 15.ª, un régimen de imposición de penalidades según la relevancia de los incumplimientos.
13.- KONTRATUA ALDATZEA Kontratua interes publikoko arrazoiengatik baino ezin da aldatu, 2017ko SPKLaren 204. eta 206. artikuluetan aurreikusitako moduan. Aldaketarik egin behar izanez gero, aldaketak 153. artikuluaren arabera egin behar dira, 2017ko SPKLaren 203. eta 204. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Zehazki, kontratua aldatzeko aukera jasotzen da, kontratazio-organoak hala erabakita, eta zerbitzua zabaltzea eskatu ahal izango da, alboko zamako 2. gidariaren, gidariaren eta atez ateko peoiaren lanaldia % 60tik (pleguaren arabera eskatzen dena) % 100era igarota (jada kontuan hartua Kontratuaren balio zenbatetsiari dagokionez). Zerbitzuaren aldaketa honek prezioaren aldaketa ekarriko du. Kasu horretan, lizitazio-prezioarekiko eskaintzaren baja-ehunekoa aplikatuta ateratzen den prezioa izango da prezioa, baina honako hauei aplikatuta: • 1. urteko aldaketa-prezioa: 294.871,65 euro, BEZa sartuta. • 2. urtean eta hurrengoetan aldatzeko prezioa: 288.326,65 euro, BEZa barne.	**13.- MODIFICACIONES DEL CONTRATO** El contrato solo podrá ser modificado por razones de interés público en los casos y en la forma prevista en los artículos 204 y 206 de la LCSP 2017, salvo en cuanto se establece en este Pliego. Las modificaciones del contrato, cuando procedan, deberán formalizarse conforme a lo establecido en el artículo 153 y se regirán íntegramente por lo dispuesto en los artículos 203 y 204 de la LCSP 2017. Específicamente se recoge la posibilidad de modificar el contrato, por acuerdo del órgano de contratación, pudiendo exigirse la ampliación del servicio, pasando la jornada laboral del 2.º conductor de carga lateral, conductor y peon del “puerta a puerta” del 60% (exigido según pliego) al 100% (ya considerado de cara al Valor Estimado del Contrato). Dicha modificación del servicio conllevará la modificación del precio. En tal caso, el precio pasaría a ser el que resulte aplicando el porcentaje de baja de la oferta respecto al precio de licitación, pero aplicado a: • Precio de modificación 1er año: 294.871,65 IVA inc • Precio de modificación 2.º año y sucesivos 288.326,65 IVA inc. Aplicado el % de la baja de precio, respecto al precio

Prezio-jaitsieraren ehunekoa zenbateko horiei aplikatuta, lizitazio prezioarekiko, lortuko litzateke aldaketa-prezioa.	de licitación, a dichos importes se obtendría el precio de modificación.
Aldaketa hori nahitaezkoa izango litzateke adjudikaziodunarentzat, kontratazio-organoak hala erabakitzen badu.	Esta modificación sería obligatoria para el adjudicatario o la adjudicataria si la acuerda el órgano de contratación.
Aipatutakoaz gain, SPKLaren 205. artikuluaren arabera, kontratazio-organoak adostutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira kontratistentzat, baldin eta banan-banan hartuta edo guztiak batera, hasierako kontratuaren prezioaren ehuneko 20tik gorakoa ez den aldaketa eragiten badute beren zenbatekoan, BEZik gabe.	Adicionalmente a lo señalado, según dispone el artículo 205 de la LCSP, las modificaciones acordadas por el órgano de contratación serán obligatorias para los contratistas cuando impliquen, aislada o conjuntamente, una alteración en su cuantía que no exceda del 20 por ciento del precio inicial del contrato, IVA excluido.
Kontratistarentzat aldaketa derrigorrezkoa ez denean, kontratazio-organoak berak erabakiko du aldaketa hori egitea kontratistak aldaketa hura idatziz onartu ondoren; hala ez bada gertatzen, kontratua deuseztatu egingo da 2017ko SPKLaren 206. artikuluari jarraituz. Halako kasuetan, kontratua aldatu aurretik, proiektuaren edo baldintza teknikoen idazleari entzunaldia eman beharko zaio, hiru egunekoa baino motzagoa ez den epe batean, bidezko jotzen dituen azalpenak eman ditzan, baldin eta zerbitzu-kontratu bat dela-eta baldintza horiek kontratazio-organokoa ez den hirugarren batek eginak badira.	Cuando la modificación no resulte obligatoria para el contratista, la misma solo será acordada por el órgano de contratación previa conformidad por escrito del mismo, resolviéndose el contrato, en caso contrario artículo 206 de la LCSP 2017. En estos supuestos antes de proceder a la modificación del contrato, deberá darse audiencia al redactor del proyecto o de las especificaciones técnicas, si estos se hubiesen preparado por un tercero ajeno al órgano de contratación en virtud de un contrato de servicios, para que, en un plazo no inferior a tres días, formule las consideraciones que tenga por conveniente.
2017ko SPKLaren 205. artikuluaren lehen paragrafoan jasotako baldintzak betez gero, aurreikusi gabeko aldaketa bat justifikatuta dago kasu hauetan:	Los supuestos que eventualmente podrían justificar una modificación no prevista, siempre y cuando esta cumpla todos los requisitos recogidos en el apartado primero de artículo 205 de la LCSP 2017, son los siguientes:
a) Hasieran kontratatutakoak baino zerbitzu gehiago behar direnean, legez aurreikusitako baldintzak betez gero.	a) Cuando deviniera necesario añadir servicios adicionales a los inicialmente contratados, siempre y cuando se den los requisitos legalmente previstos.
b) Kontratuaren lizitazioa egin zenean aurreikusi ezin ziren eta gerora agertutako gorabeheren ondorioz sortu bada indarrean dagoen kontratua aldatu beharra, legezko baldintzak betez gero.	b) Cuando la necesidad de modificar un contrato vigente se derive de circunstancias sobrevenidas y que fueran imprevisibles en el momento en que tuvo lugar la licitación del contrato, siempre y cuando se cumplan las condiciones legales.
c) Aldaketak funtsezkoak ez direnean. Kasu horretan, bereziki justifikatu beharko da horien beharra, eta adierazi beharko da zergatik ez ziren prestazio horiek hasierako kontratuan sartu.	c) Cuando las modificaciones no sean sustanciales. En este caso se tendrá que justificar especialmente la necesidad de las mismas, indicando las razones por las que esas prestaciones no se incluyeron en el contrato inicial.
Kontratua indarrean dagoela aldatu behar bada,	Si se modificase el contrato durante su vigencia, se deberá formalizar la modificación del contrato y se

kontratuaren aldaketa formalizatu behar da eta aldaketaren gaineko iragarkia kaleratu behar da kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean, aldaketa onartu eta 5 eguneko epean.	deberá publicar en todo caso un anuncio de modificación en el perfil de contratante del órgano de contratación en el plazo de 5 días desde la aprobación de la misma.
14.- PRESTAZIOA HARTZEA ETA BERME EPEA Kontratua gauzatutzat hartuko da kontratistak prestazioa erabat gauzatu duenean, kontratuan ezarritako baldintzetan eta Administrazioa gogobeteta. Dena den, zerbitzua bete dela egiaztatzeko, kontratuaren helburu den zerbitzua amaitzen denetik hilabeteko epean zerbitzuari harrera egiteko ekintza formala eta positiboa egingo da. Kontratuaren izaera dela eta, **hiru hilabete (3) berme-epea ezartzen da, erreklamazioak izan litezkeen jakin ahal izateko.**	**14.- RECEPCION DE LA PRESTACION Y PLAZO DE GARANTIA** El contrato se entenderá cumplido cuando el/la contratista haya realizado, de acuerdo con los términos del mismo y a satisfacción de la Administración, la totalidad de la prestación. En todo caso, su constatación, exigirá un acto formal y positivo de recepción que se efectuará en el plazo de un mes desde la finalización de la prestación objeto del contrato. Dada la naturaleza de este contrato **se prevé un plazo de garantía de tres (3) meses, a fin de comprobar la existencia de posibles reclamaciones.**
15.- KONTRATUA EZ BETETZEAREN ONDORIOAK **A.- Orokorrean** Kontratistak kontratua betetzeko guztira ezarri den epearen barruan burutu behar du kontratua, eta prestazioen burutzapen partzialerako ezarritako epeak ere bete behar ditu. Kontratista berandutza egoeran dagoela aitortzeko ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurreko eskaera edo errekerimendua egitea. 12. klausulan jasotako zigorrak eta 16. klausulan jasotako suntsitzeko ahalmenak gorabehera, kontratua suntsitu eta bermea galdu arren, Administrazioak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du eragindako kalte-galerengatik, harik eta bermearekin estali ez den zenbatekoa estali arte. **B.- SPKLREN 192.ETIK 194.ERA BITARTEKO ARTIKULUEN BABESEAN EZARRITAKO ZIGOR-ARAUBIDEA**	**15.- CONSECUENCIAS DEL INCUMPLIMIENTO** **A.- Con garacter general** El/La contratista está obligado/a a cumplir el contrato dentro del plazo total fijado para la realización del mismo, así como los plazos parciales señalados para su ejecución sucesiva. La constitución en mora no precisa intimación previa por parte de la Administración. Sin perjuicio de las penalidades recogidas en la cláusula 12.ª, y de las facultades resolutorias de la cláusula 16.ª, la resolución del contrato con pérdida de la garantía no excluye la indemnización a que la Administración pueda tener derecho por los daños y perjuicios ocasionados en lo que excedan del importe de la garantía incautada. **B.- RÉGIMEN DE PENALIDADES, ESTABLECIDO AL AMPARO DE LOS ARTÍCULOS 192 A 194 LCSP**

A) KONTRATUA GAUZATZEKO EPEAK EZ BETETZEA Kontratatutako enpresak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua gauzatzeko epea – Bai epe osoa, bai, hala badagokio, zatikako epeak – betetzean berandutzen bada, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, bermea galduz, edo eguneko zigorrak ezartzea. Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren 100eko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzeko, zigor gehiago ezarrita.	A) INCUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO Si la empresa contratada, por causas imputables a la misma, hubiese incurrido en demora respecto del cumplimiento del plazo de ejecución del contrato, tanto del plazo total como, en su caso, de los plazos parciales, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del mismo, con pérdida de la garantía, o por la imposición de las penalidades diarias. Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5 por 100 del precio del contrato, el Órgano de Contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades.
B) INGURUMEN, GIZARTE, LAN, BERDINTASUN ETA HIZKUNTZ ARLOKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEA Kontratistak ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzen ez baditu, bereziki soldaten ordainketan behin eta berriz atzeratzen badira edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako soldata-baldintzak baino txikiagoak aplikatzen badira, eta betebehar horiek larriak eta dolozkoak badira, Administrazioak, SPKLren 201. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, zigorrak ezarri ahal izango ditu, horietako bakoitza kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorakoa ez bada, BEZa kenduta; eta ehuneko 50etik gorakoa izan gabe. Era berean, berdintasunaren arloko eta hizkuntzaren arloko ez-betetzeak zigortuko dira. Langileen soldatak edo Gizarte Segurantza ez ordaintzeagatik Mankomunitateari kalterik eragitekotan, esleipendunak eragindako edozelako kaltea ordaindu beharko dio Udalari.	B) INCUMPLIMIENTO DE LAS OBLIGACIONES EN MATERIA MEDIOAMBIENTAL, SOCIAL, LABORAL, DE IGUALDAD Y EN MATERIA LINGÜÍSTICA En caso de incumplimiento de las obligaciones del contratista en materia medioambiental, social o laboral, en especial los retrasos reiterados en el pago de los salarios o la aplicación de condiciones salariales inferiores a las derivadas de los convenios colectivos que sea grave y dolosa, la Administración, en aplicación de lo previsto en el artículo 201 de la LCSP, podrá imponer penalidades por cuantía cada una de ellas no superior al 10 por ciento del precio del contrato, IVA excluido; y sin que el total de dichas penalizaciones pueda superar el 50 por ciento del precio convenido. . De igual manera se penalizará los incumplimientos en materia de igualdad y en materia lingüística. El incumplimiento del deber de pago de los salarios de las trabajadoras o su Seguridad Social conllevará el deber de indemnizar a la Mancomunidad de cualquier perjuicio que tales incumplimientos pudieran conllevar.
C) LANGILEAK SUBROGATZEKO BETEBEHARRAK EZ BETETZEA Kontratistak ez baditu betetzen kontratuaren xede den zerbitzuaren eraginpean dauden langileen	C) INCUMPLIMIENTO DE LAS OBLIGACIONES DE SUBROGACIÓN DE TRABAJADORES En caso de incumplimiento, por el contratista, de sus obligaciones en materia de subrogación de los

subrogazio-betebeharrak, Administrazioak, SPKLren 130.4 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, kontratuaren prezioaren ehuneko 10 gainditzen ez duten zigorrak ezarri ahal izango ditu, BEZik gabe, eta zigor horien guztizkoak ezin izango du hitzartutako prezioaren ehuneko 50 gainditu.	trabajadores afectados por el servicio objeto del contrato, la Administración, en aplicación de lo previsto en el artículo 130.4 de la LCSP, podrá imponer penalidades por cuantía cada una de ellas no superior al 10 por ciento del precio del contrato, IVA excluido, y sin que el total de dichas penalizaciones pueda superar el 50 por ciento del precio convenido.
D) GAIZKI BETETZEAGATIK Ez-betetzeak:	D) POR CUMPLIMIENTO DEFECTUOSO Incumplimientos:
Esleipendunak zerbitzua ematean egin ditzakeen ez-betetzeak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, ondoren zehazten den tipifikazioaren arabera:	Los incumplimientos en los que puede incurrir la adjudicataria de la prestación del servicio, se clasifican en leves, graves y muy graves, según la tipificación de las mismas que a continuación se detalla:
A. ARAU-HAUSTE ARINAK Honako hauek hartuko dira falta arintzat: 1.- Hilabete bakar batean 10 abisu/kexa baino gehiago eta 15 baino gutxiago izatea, edukiontziak gainezka egoteagatik. Desbordeak paper edo kartoia edukiontziaren inguruan dagoenean ulertuko dira, horren arrazoia edukiontzia beteta egotea denean. 2.- Zerbitzuak behin eta berriz ondo ez ematea (lanen kalitatea, baliabideen eskasia, materialaren egoera eta mantentze-lanak, lanak gauzatzeko erritmoa, Mankomunitatearen edo honen Zerbitzu Teknikoen aginduak ez betetzea, Ikuskaritza eta Kontrol Zuzendaritzaren eskumenak betez, lan-programa aldatzea, etab.). 3.- Pleguaren edo eskaintzaren arabera jarri beharreko baliabideak hilabete batean bi egunetan ez jartzea, bereziki arau-hauste bezala jasota ez dagoen kasuetan. 4.- Adierazitako ordutegiaren barruan zerbitzuak hasteko ordubete baino gehiagoko atzerapena, urte bakoitzean hilabete batean bi aldiz baino gehiagotan edo urte batean hamar aldiz baino gehiagotan. 5.- Mankomunitateari jakinarazi gabe zerbitzuan etenaraztea edozein arrazoirengatik, betiere urte natural bakoitzean 4 aldiz baino gehiago gertatzen ez bada. 6.- Zerbitzuak emateko ardura duten langileek uniformerik ez izatea edo uniformea txarto eramatea, prestakuntza egiteko erabilitako	A. FALTAS LEVES Tendrán la consideración de falta leve: 1.- Tener más de 10 y menos de 15 avisos/quejas en una sola mensualidad, por desbordes en los contenedores. Se entiende por desborde la situación de acumulación de papel y/o cartón en el entorno del contenedor por estar lleno el mismo. 2.- La imperfección no reiterada en la prestación de los servicios (relativo tanto a la calidad de los trabajos, insuficiencia de medios, estado y mantenimiento del material, ritmo de ejecución de los trabajos, incumplimiento de órdenes de la Mancomunidad o de sus Servicios Técnicos, en el ejercicio de sus atribuciones de Dirección Inspección y Control, alteración en el programa de trabajo, etc.). 3.- No adscribir los medios requeridos según pliego u oferta durante dos días en una mensualidad, cuando no contenga tipificación específica. 4.- El retraso que no exceda de una hora en iniciar los Servicios dentro del horario señalado, por más de dos veces en un mes o más de diez en cada año. 5.- La interrupción no comunicada a la Mancomunidad del servicio, por cualquier causa y siempre que no se produzca más de 4 veces en cada año natural. 6.- La falta o deficiencia de uniformidad en el personal encargado de la prestación de los

materiala gaizki aurkezteagatik eta egoera txarrean egoteagatik, baldin eta akats horiek kontratistak zuzentzen baditu 48 orduko epean, ikusitako akatsa jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita. 7.- Erabiltzaileekiko adeitasunik eza. 8.- Arduraduna ez aurkitzea edo agindutako lanak zerbitzu-orduetatik kanpo ez artatzea, betiere urte natural bakoitzean 4 aldiz baino gehiago gertatzen ez bada. 9.- Informazioa ez bidaltzea edo parteak atzeratzea. Kontratistak txosten horiek egin edo aurkeztu behar ditu horietako bakoitzerako ezarritako aldizkakotasunarekin, betiere urte natural bakoitzean 4 aldiz baino gehiago egiten ez bada.	servicios, por la mala presentación y estado por causa del material empleado en la confección y siempre que estas deficiencias sean corregidas por el contratista dentro del plazo de 48 horas, desde que se le comunique la deficiencia observada. 7.- La descortesía con los usuarios. 8.- Que el Encargado o la Encargada esté ilocalizable o no se atienda fuera de las horas de servicio los trabajos a encomendar y siempre que no se produzca más de 4 veces en cada año natural. 9.- La falta de envío de la información, o su retraso de partes, informes que el contratista está obligado a realizar o presentar con la periodicidad establecida para cada uno de ellos y siempre que no se produzca más de 4 veces en cada año natural.
B. ARAU-HAUSTE LARRIAK Honako hauek hartuko dira arau-hauste larritzat: 1.- Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea. 2.- Hilabete batean 15 abisu/kexa baino gehiago eta 25 baino gutxiago izatea, edukiontziak gainezka egoteagatik. 3.- Pleguaren edo eskaintzaren arabera eskatutako baliabideak ez atxikitzea hileko batean bi egun baino gehiagoz eta bost egun baino gutxiagoz. 4.- Kontratistak ez betetzea aplikatu beharreko legezko edo erregelamenduzko xedapenetan, indarreko hitzarmenean, eskatutako aseguruetan, ingurumenean, segurtasun-elementu eta -neurrietan, lan-betebeharretan, Gizarte Segurantzan eta segurtasun- eta higiene-betebeharretan, zerbitzuari atxikitako langile eta makineriarekin, etab. 5.- Kontratistak pleguetan edo bere eskaintzan adierazitako gainerako baldintzetako edozein ez betetzea. 6.- Zerbitzuak behin eta berriz ondo ez ematea. 7.- Osasun-aginduak ez betetzea edo osasungaitzak, arriskutsuak edo deserosoak diren egoerak saihesteari buruzko aginduak ez betetzea, behin kontratistak formalki ohartarazi eta bete ez dituenean. 8.- Kontratistari emandako aginduak behin eta berriz ez betetzea, zerbitzuak emateko antolamenduari, moduari eta araubideari dagokienez, edo egoera txarrean dagoen	B. FALTAS GRAVES Tendrán la consideración de falta grave: 1.- La reiteración en la comisión de faltas leves. 2.- Tener más de 15 y menos de 25 avisos/quejas en una sola mensualidad, por desbordes en los contenedores. 3.- No adscribir los medios requeridos según pliego u oferta durante más de dos días días y menos de cinco días en una mensualidad 4.- El incumplimiento por parte del contratista de las condiciones establecidas por las disposiciones legales o reglamentarias aplicables, convenio vigente, seguros exigidos, medio ambiente, elementos y medidas de seguridad, obligaciones laborales, de Seguridad Social y de seguridad e higiene, con el personal y maquinaria afecto al servicio, etc. 5.- El incumplimiento por el contratista de cualquiera de las demás condiciones señaladas en los Pliegos o, en su propia oferta. 6.- La imperfección reiterada en la prestación de los servicios. 7.- La inobservancia de las prescripciones sanitarias o el incumplimiento de las órdenes sobre evitación de situaciones insalubres, de peligrosidad o incomodidad, una vez apercibido formalmente el contratista y no haberlas éste cumplido. 8.- La desobediencia reiterada de las órdenes dadas al contratista en lo que se refiere a la ordenación, forma y régimen de prestación de los servicios, o no

funtsezko materiala berriz ez jartzea edo konpontzea. 9.- 24 orduko epean langileen aldi baterako ezintasun-kasuen berri ez ematea. 10.- Edozein motatako parteak edo aldizkako txostenak faltsutzea. 11.- Langileen plantila aldatzea Mankomunitateari aldez aurretik jakinarazi gabe. 12.- Makinak edo instalazioak behar bezala ez mantentzea, honek kontratua ez betetzea eragiten duenean. 13.- Kontratatutako zerbitzu publikotik kanpoko helburu edo objektuetarako erabiltzea zerbitzuari atxikitako materialak, edozein modalitate edo tituluren pean, aldez aurretik Mankomunitatearen baimenik gabe. C. OSO ARAU-HAUSTE LARRIAK Honako hauek hartuko dira oso arau-hauste larritzat: 1.- 25 abisu/kexa baino gehiago izatea hileko bakar batean, edukiontziak gainezka egoteagatik. 2.- Pleguaren edo eskaintzaren arabera eskatutako baliabideak hilabete batean bost egun baino gehiagotan ez atxikitzea, horrek berariazko zehapen-tiporik ez duenean, eta ez atxikitzea larria denean. 3.- Kontratatutako zerbitzua ez ematea edo agindutako baliabideak jartzeko betebeharra ez betetzea agiri honetan ezarritako epearen barruan, ezinbesteko kasuetan izan ezik. 4.- Kontratatutako zerbitzuak geldiaraztea edo ez ematea, hori ezinbesteko kausengatik gertatzen denean izan ezik. 5.- Iruzurra zerbitzuak emateko moduan, baliabide egokiak edo eskatutako funtsezko elementuak erabili gabe, edo zerbitzuari atxikitako materialen bat desagertzea. 6.- Kontratistak edo haren langileek edozein ordainsari jasotzea, edo partikularren edo zerbitzuaren erabiltzaileen eskutik jasotzea. 7.- Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea **ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK** Kontratistak egindako arau-hausteak honela	reponer o reparar el material esencial en mal estado. 9.- No informar de casos de incapacidad temporal del personal, en el plazo de 24 horas. 10.- Falsificación de cualquier tipo de parte o informes periódico. 11.- Variación de la plantilla sin comunicación previa a la Mancomunidad. 12.- No mantener adecuadamente la maquinaria o las instalaciones, cuando ello lleve a incumplir el contrato 13.- Destinar a fines u objetos ajenos al servicio público contratado, los materiales adscritos al servicio, bajo cualquier modalidad o título, sin la previa autorización de la Mancomunidad. C. FALTAS MUY GRAVES Tendrán la consideración de falta muy grave: 1.- Tener más de 25 avisos/quejas en una sola mensualidad, por desbordes en los contenedores. 2.- No adscribir los medios requeridos según pliego u oferta durante más de cinco días en una mensualidad, cuando ello no tenga un tipo sancionador específico, y cuando la no adscripción sea grave. 3.- No dar comienzo a la prestación del servicio contratado o no cumplir el deber de adscripción de medios comprometidos dentro del plazo estipulado por el presente pliego, excepto cuando ello obedezca a causa de fuerza mayor. 4.- Paralización o no prestación de los servicios contratados, excepto cuando ello obedezca a causas de fuerza mayor. 5.- Fraude en la forma de prestación de los servicios, no utilizando los medios adecuados o elementos esenciales exigidos, o desaparición de alguno de los materiales adscritos al servicio. 6.- Percibir el contratista o sus empleados cualquier remuneración o merced de los particulares o usuarios del Servicio. 7.- La comisión reiterada de faltas graves

zehatuko dira: - Arau-hauste arinak 300 eurotik 1.500 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira. Kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da urtebeteko kontratuan 15 hutsegite egitea. - Arau-hauste larriak 1.501 eurotik 3.000 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira. Kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da urtebeteko kontratuan 10 hutsegite egitea. - Oso arau-hauste larriak 3.001 eurotik 15.000 eurora bitarteko isunarekin zehatuko dira, edota behin betiko bermea galduz gero, kontratistak beste bat eratu beharko du, zenbateko berekoa, edo kontratua deuseztatuko da, urte batean oso arau-hauste bat baino gehiago betetzen bada edota oso larritzat jotako arau-hausteen 3), 4) eta 5) kasuetan. Zehapenez gain, kontratistak Mankomunitateari kalte-ordaina eman beharko dio, egin ez den zerbitzuari, aplikatu ez diren baliabideei eta abarri buruz egiten den balorazioari dagokiona. Ezarritako isunen zenbatekoa kenduko da zerbitzua edo bermea ordaintzeko ematen diren hileko ziurtagiriak ordaintzean. **Zigorrak ezartzea:** Kontratua ez betetzeagatiko zigor eta kalte-ordain horiek ezartzeko, kontraesaneko espediente sumario bati jarraituko zaio, eta bertan 5 egun naturaleko alegazio-epea emango zaio kontratistari, salaketa egin ondoren. Alegazio horiek eta zigor espedientea Presidenteak ebatziko ditu, zerbitzuaren arduradunak txostena egin ondoren. Administrazio-bidea amaituko duen ebazpena. Mankomunitateak zigor horiek ezartzeko espedientea abiaraziko du gertaeren berri idatziz jasotzen duenean. Hala ere, uste da ez-betetzeak ez duela eraginik izango lanen exekuzio materialean modu larrian, edo penalizazio-espedientearen hasierak kalte handiagoa eragin diezaiokeela kontratuaren exekuzioaren martxari onura baino, espediente hori kontratuaren berme-epea amaitu aurreko edozein unetan hasi ahal izango da.	**INFRACCIONES Y SANCIONES** Las faltas cometidas por el Contratista se sancionarán de la siguiente forma: -Las faltas leves serán sancionadas con multa de 300 a 1.500 €. Será causa de resolución del contrato la comisión de 15 faltas leves durante un año de contrato. -Las faltas graves serán sancionadas con multa de 1.501 a 3.000 €. Será causa de resolución del contrato la comisión de 10 faltas graves durante un año de contrato. -Las faltas muy graves serán sancionadas con multa de 3.001 a 15.000€ y/o la pérdida de la garantía definitiva con obligación del contratista de constituir una nueva por igual importe, o con resolución del contrato en el caso de de reiteración de faltas muy graves en una anualidad, y de las faltas 3), 4) y 5) de las calificadas como muy graves. Además de las sanciones, el contratista deberá abonar a la Mancomunidad una indemnización por el importe correspondiente a la valoración que se haga del Servicio no realizado, medios no aplicados, etc. El importe de las multas impuestas se deducirá al abonar las certificaciones mensuales que se expidan para el pago del servicio, o bien de la garantía. **Imposición de penalidades:** Para la imposición de estas penalidades e indemnizaciones por incumplimientos contractuales se seguirá un expediente contradictorio sumario, en el que se concederá al contratista un plazo de alegaciones de 5 días naturales tras formular la denuncia. Dichas alegaciones y el expediente de penalización será resuelto, previo informe del responsable del servicio, por el Sr. Presidente. Resolución que pondrá fin a la vía administrativa. El inicio del expediente para la imposición de estas penalidades por la Mancomunidad se realizará en el momento en que tenga conocimiento por escrito de los hechos. No obstante, se estima que el incumplimiento no va a afectar a la ejecución material de los trabajos de manera grave o que el inicio del expediente de penalización puede

Ezarritako zigorrak eta kalte-ordainak berehala betearazgarriak izango dira, eta Mankomunitateak kontratistari ordaindu gabe dituen ordainketetatik kenduko dira. Ordaindu gabeko zenbatekorik ez badago, behin betiko bermearen aurka ordaindu ahal izango dira, eta berme hori zigorraren zenbatekora iristen ez bada, premiamenduzko administrazio-bidetik erreklamatu ahal izango da, zuzenbide publikoko diru-sarreratzat jotzen delako.	perjudicar más a la marcha de la ejecución del contrato que beneficiarla, podrá iniciarse dicho expediente en cualquier momento anterior a la terminación del plazo de garantía del contrato. La penalidades e indemnizaciones impuestas serán inmediatamente ejecutivas y se harán efectivas mediante deducción de los pagos correspondientes que la Mancomunidad tenga pendientes de abonar al contratista. Si ya no existiesen cantidades pendientes de pago, se podrán hacer efectivas contra la garantía definitiva y si ésta no alcanzase el montante de la penalización, se podrá reclamar por la vía administrativa de apremio por considerarse ingreso de derecho público.
16.- KONTRATUA SUNTSITZEKO ARRAZOIAK ETA ONDORIOAK Administrazio kontratuetarako aurreikusitako arrazoiengatik suntsituko da kontratua, 2017ko SPKLaren 211. artikuluaren arabera eta testu horren 313. artikuluan zerbitzuetarako kontraturako ezarritakoetarako. 211. artikuluko f) eta h) paragrafoetan ezarritakoa aintzat hartuta, kontratuaren oinarrizko betebeharrak ez betetzea kontratua suntsitzea ekarriko du. Hona hemen arrazoiak: a) Isilpeko datuak edo aurrekariak isilean ez gordetzea. b) Azpikontratazio arloko mugak ez betetzea. Administrazioak kontratua suntsitu dezake plegu honetan azpikontrazio arloan ezarriko betebeharrak eta mugak ez betetzeagatik. c) Administrazioaren zuzendaritza- eta ikuskapen-ahalmenei trabak jartzeagatik. Era berean, kontratua suntsitzeko arrazoia da kontratistak ez laguntzea edo trabak jartzea Administrazioaren zuzendaritza-eta ikuskapen-ahalmenak gauzatzeko orduan, aurrez idatziz ohartaraziz gero.	**16.- CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO Y SUS EFECTOS** El contrato se resolverá por las causas previstas para los contratos administrativos en el artículo 211 de la LCSP 2017 y por las específicamente indicadas para el contrato de servicios en el artículo 313 del citado texto. Al amparo de lo establecido en los apartados f) y h) del artículo 211, se consideran causa de resolución por incumplimiento de obligaciones contractuales esenciales las siguientes: a) No guardar sigilo respecto a los datos o antecedentes de carácter confidencial. b) Incumplimiento de las limitaciones establecidas en materia de subcontratación. La Administración podrá resolver el contrato por incumplimiento del mismo cuando se incumplan las obligaciones y limitaciones que el presente pliego impone al adjudicatario en materia de subcontratación. c) Obstrucción a las facultades de dirección e inspección de la administración. Se considerará igualmente justa causa de resolución del contrato por incumplimiento del contratista la obstrucción o falta de colaboración para hacer efectivas las facultades de dirección e inspección reconocidas a la Administración en el presente pliego, previamente advertida por

d) Pleguan ezarritako bitarteko pertsonal edo materialak ez atxikitzea. e) Pleguan zehaztutako baldintza bereziak ez betetzea. f) Kontratuan zehar 10 arau-hauste larri egitea urte batean, arau-hauste oso larriak errepikatzea urte batean, edo arau-hauste oso larriak egitea, ondorio hori zehapen gisa jasota badago. Alde biek erabakiz gero kontratua suntsitzea, alde bien eskubideak hitzartutakora egokituko dira.	escrito. d) No adscribir los medios personales o materiales exigidos en el presente pliego. e) Incumplir las condiciones especiales de ejecución definidas en este pliego. f) La comisión de 10 infracciones graves durante un año de contrato, la reiteración de infracciones muy graves en un año, o la comisión de infracciones muy graves que tengan recogida esa consecuencia como sanción. En el supuesto de resolución de mutuo acuerdo, los derechos de las partes se acomodarán a lo válidamente estipulado por ellas.
17.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK **a) Interpretazioa** Mankomunitate honen Kontratazio-organuari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz. **b) Uko egitea eta atzera egitea** Kontratazio organoak erabakitzen badu deialdia egin eta gero kontratu bati uko egitea edo esleipenerako prozedurari berriro ekitea, SPKLaren 336. artikuluan aurreikusitako txostena egin ondoren, jakinarazi egin behar die hautagaiei edo lizitatzaileei. Kontratua hitzartzeari uko egitea edo prozeduran atzera egitea kontratazio organoak baino ezin du erabaki, esleipena baino lehen. Bata gertatu zein bestea gertatu, konpentsatu egin behar dira hautagai edo lizitatzaileak ordura arte sortutako gastuengatik, Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorrekin bat etorriz. Ez dago beste lizitaziorik sustatzerik, atzera egiteko erabili ziren arrazoiak bere horretan	**17.- PRERROGATIVAS DE LA ADMINISTRACIÓN** **a) Interpretación** Corresponden al Órgano de contratación de esta Mancomunidad las prerrogativas de interpretar el contrato, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de está, dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos establecidos en la Ley de Contratos del Sector Público, así como en el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas. **b) Renuncia y desistimiento** En el caso en que el órgano de contratación renuncie a celebrar un contrato para el que haya efectuado la correspondiente convocatoria, o decida reiniciar el procedimiento para su adjudicación, previa emisión del informe previsto en el artículo 336 de la LCSP, lo notificará a los candidatos o licitadores. La renuncia a la celebración del contrato o el desistimiento del procedimiento sólo podrán acordarse por el órgano de contratación antes de la adjudicación. En ambos casos se compensará a los candidatos o licitadores por los gastos en que hubiesen incurrido de acuerdo con los principios generales que rigen la responsabilidad de la Administración. No podrá promoverse una nueva licitación en tanto

dauden bitartean. Prozeduran atzera egitea, ordea, ez da arrazoia lizitazio prozedurari ekiteko berehala.	subsistan las razones alegadas para fundamentar la renuncia. En cambio, el desistimiento del procedimiento no impedirá la iniciación inmediata de un nuevo procedimiento de licitación.
II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA	**II.- PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR**
18.- ESLEIPENA EGITEKO PROZEDURA ETA MODUA A.- PROZEDURA Prozedura irekiaren bidez esleituko da kontratua, eta izapide laburrak erabiliz, beti ere, 2017ko SPKLaren 131. artikuluan eta 156-158 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eskaintzarik onena hautatzeko zehaztu diren irizpideak ezarrita (2017ko SPKLaren 145. eta 146. artikuluak). Irizpide horiek pleguaren 19. klausulan datoz zehaztuta. B- KONTRATATZAILEAREN PROFILA Kontratazio organoak internet bidez zabalduko du kontratatzailearen profila. Kontratatzaile profilerako sarbidea erakundearen web-orrian dago zehaztuta, baita EAEko Kontratazio Plataforman eta plegu honetan ere. C.- LIZITAZIOARAKO DEIALDIA 2017ko SPKLaren 135. artikuluan ezarritako moduan. Gainera, lizitazioa “Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean” argitaratu beharko da, lizitaziorako iragarkia bidali dela frogatuz. Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegoak esleitzeko botereari baieztatuko dio iragarkia jaso duela eta bidalitako informazioa argitaratu dela jakinaraziko dio, argitalpenaren data zehaztuz. Baieztapen honek argitalpenaren froga egingo du. D.- KONTRATATZEKO GAITASUNA	**18.- PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACION** A.- PROCEDIMIENTO El contrato se adjudicará mediante procedimiento abierto, de acuerdo con lo establecido en los artículos 131 y 156 a 158, de la LCSP 2017, de conformidad con la aplicación de los criterios que se detallan para la determinación de la mejor oferta y de acuerdo con los artículos 145 y 146 de la LCSP 2017, criterios que figuran en la cláusula 19.ª del presente pliego. B.- PERFIL DE CONTRATANTE El órgano de contratación difundirá a través de internet su perfil de contratante. La forma de acceso al perfil de contratante se especifica en la página Web institucional, en la Plataforma de Contratación de la CAPV, y en este Pliego C.- CONVOCATORIA DE LICITACIÓN Se llevará a cabo en la forma prevista en el artículo 135 de la LCSP 2017. Además, la licitación deberá publicarse en el «Diario Oficial de la Unión Europea», dejando constancia de la fecha de envío del anuncio de licitación La Oficina de Publicaciones de la Unión Europea confirmará al poder adjudicador la recepción del anuncio y la publicación de la información enviada, indicando la fecha de dicha publicación. Esta confirmación constituirá prueba de la publicación.

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko eta profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 74. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak 21. baldintzan ezarritakoak izango dira. Era berean, 2017ko SPKLaren 70. artikuluan datozen bateragarritasun-baldintza bereziak bete behar dira. Gainera, beren kabuz edo baimendutako ordezkari baten bitartez egin dezakete (ordezkariak berariazko ahalorde askietsia eduki behar du). Pertsona juridiko baten ordezkari bertako kide bat aritzen bada, horretarako ahalmena duela frogatu behar du agiri bidez. Batera zein bestera, ordezkariari ere lehen aipatutako kontratatzeko debeku horiek ezarri ahal zaizkio. Enpresariek kontratu honen xede den jarduera edo prestazioa gauzatzeko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute. Kontratatzeko gaitasuna dute Europako Batasuneko kide diren estatuetako enpresa ez espainiarrek edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Akordioaren Estatu sinatzaileek, eurek dauden Estatuko legediarekin bat etorriz, eskaini beharrekoa eskaintzeko gaituta badaude. Euren estatuko legegiak baimen berezia edo erakunde bateko kide izatea eskatzen badu zerbitzua eskaini ahal izateko, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu behar dute. Jarduteko gaitasunik, ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen teknikoa edo profesionala ez duten pertsonei esleituz gero kontratuak; sailkapena eskatzen denean, sailkapenik gabeko enpresei esleituz gero kontratuak; edo kontratatzeko debekuren bat dutenei esleituz gero, esleipena deusez izango	D.- APTITUD PARA CONTRATAR Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en el artículo 74 de la Ley de Contratos del Sector Público. La solvencia se acreditará y evaluará de acuerdo con los medios establecidos en la cláusula 21.ª. De igual modo deberán cumplirse las condiciones especiales de compatibilidad señaladas en el artículo 70 de la LCSP 2017. Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas. Los empresarios o las empresarias deberán contar, asimismo, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de la actividad o prestación objeto del presente contrato. Tendrán capacidad para contratar las empresas no españolas de Estados miembros de la Unión Europea o de los Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo que, con arreglo a la legislación del Estado en que estén establecidas, se encuentren habilitadas para realizar la prestación de que se trate. Cuando la legislación del Estado en que se encuentren establecidas exija una autorización especial o la pertenencia a una determinada organización para poder prestar en él el servicio de que se trate, deberán acreditar que cumplen este requisito. La adjudicación de contratos a favor de personas que carezcan de la capacidad de obrar, de la solvencia económica, financiera, técnica o profesional; de la habilitación empresarial o profesional cuando sea exigible; de la clasificación, cuando esta proceda o que estén incursas en prohibición de contratar serán nulas en los términos

da, 2017ko SPKLaren 39.2.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.	del artículo 39.2.a) de la LCSP 2017.
19.- BALIOESTEKO IRIZPIDEAK Kontratua esleitzeko oinarri izango diren irizpideak, garrantzitsuenetik hasita eta atxikitzen zaien haztapen-mailaz, honakoak dira:	**19.- CRITERIOS DE VALORACION** Los criterios de valoración de las ofertas que han de servir de base para la adjudicación del contrato relacionados por orden decreciente de importancia y por la ponderación que se les atribuye son los siguientes:
AUTOMATIKOKI BALORATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK EDO BALIO-JUDIZIO BIDEZ BALORATU BEHARREKOAK: 40 puntu	**CRITERIOS NO AUTOMÁTICAMENTE EVALUABLES, O EVALUABLES MEDIANTE JUICIO DE VALOR: 40 puntos**
A) Zerbitzua eskaintzeko moduari eta kalitateari buruzko Proiektua. 25 puntu arte Zerbitzua prestatzeko proiektua hartuko da aintzat, jarraian zehaztuko delarik zer baloratuko den eta zein neurritan. Proiektuak jarraian zehazten dena kontuan hartu beharko du: 1. Zerbitzuaren antolaketa eta lanen deskribapena: • Maiztasunak eta ordutegiak: edukiontzi multzo bakoitzak (BTParen I. eta II. eranskinak) bildu nahi dituen asteko egunen hasierako proposamena, udalerria eta gutxi gorabeherako ordutegia zehaztu beharko dira. • Ibilbideak: enpresa lizitatzaileak memorian mapa bat sartu beharko du, edukiontzi guztiak biltzeko egingo duen ibilbide xehatuarekin (BTParen I. eta II. eranskinak). 2. Zerbitzuari atxikitako baliabide materialen eta giza baliabideen deskribapena. Agiri tekniko honetan jasotako baliabide guztiak bete beharko dira. Enpresa lizitatzaileek beren memorian zehatz-mehatz azaldu beharko dute nola ekin behar dioten papera eta kartoia biltzeari zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko	**A) Proyecto en cuanto a la forma de prestación y calidad del servicio: Hasta 25 puntos** Se valorará la formulación de un proyecto de prestación del servicio, detallándose a continuación qué será objeto de valoración, y en qué medida. El proyecto deberá referirse a los siguientes extremos: 1. Organización del servicio y descripción de los trabajos: • Frecuencias y horarios: se deberá detallar la propuesta inicial de los días de la semana que se propone recoger cada grupo de contenedores (anexo I y II del PPT), el municipio y el horario aproximado. • Rutas: la empresa licitadora deberá incluir en la memoria un mapa con la ruta detallada que realizará para recoger todos los contenedores (anexo I y II del PPT). 2. Descripción de los medios materiales y humanos adscritos al servicio. Los medios deberán ser suficientes para cubrir todas las recogidas que se incluyen en este pliego técnico. Las empresas licitadoras deberán explicar en su memoria minuciosamente cómo habrán de abordar la recogida de papel y cartón en aquellos puntos considerados como conflictivos para garantizar la efectividad del servicio.

